GAZTERIA ETA KIROL SAILA

- 1088/2002 Erabakia, a uaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena; horren bidez, 450.00 €-ko zenbatekoa ematen da 2003ko ekitaldian zehar Eskola Kirola aurrera eramateko irabazi asmorik gabeko Entitateen bitartez burutuko diren ekintzak diruz laguntzeko.

DEPARTAMENTO DE JUVENTUD Y DEPORTE

- Acuerdo 1088/2002, del Consejo de Diputa e 27 de diciembre, por el que se destina la cantidad de 450.00 € para subvencionar las actividades para el desarrollo del Deporte Escolar a través de Entidades sin ánimo de lucro durante el ejercicio 2003.

# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA / ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Udalak

### IRURAIZ-GAUNA

8.500

**Ediktua**

2002ko abenduaren 20an egindako ohiko bilkuran, Udalbatzak hasierako onarpena eman zion 2003ko ekitaldirako Udal Aurrekontuari. Beraz, Toki Ogasunei buruzko abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, espediente hori jendaurrean jarriko da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada aurrekontua behin betiko onartutzat joko da.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da hau.

Acilu, 2002ko abenduaren 27a.– Alkate-udalburua, ENRIQUE RAMÍREZ DE OCÁRIZ ARMENTIA.

### LABASTIDA

15

**Labastidako Udaletxea birgaitzeko lanen (1. aldia) kontratuaren esleipena argitara emateko iragarkia.**

1.- ESLEIPENA EGITEN DUEN ERAKUNDEA:

Erakundea: Udalbatza Osoa

Espedientea izapidetzen duen bulegoa: Idazkaritza

2.- KONRATUAREN HELBURUA.

Kontratu mota: Obra kontratua

Helburuaren deskribapena: Labastidako Udaletxea Birgaitzeko lanen 1. aldia

Loteak: ez daude

3.- IZPIDEKETA, PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.

Izapideketa: premiazkoa

Prozedura: prozedura negoziatua, publizitaterik gabea [141 a) artikulua HAKLTB]

4.- L ZIOAREN AURREKONTUA: zenbatekoa guztira: 458.969,7 €

5.- ESLEIPENA

a) Eguna: 2002ko abenduaren 23a

b) Kontratista: Txema Esparta, S.L

c) Esleipenaren prezioa: 448.173,3 €

Labastida, 2002ko urtarrilaren 2a.– Idazkari-kontuhartzailea. RAÚL GÓMEZ IÑIGO.

### LABASTIDA

8.424

**Iragarkia**

Udalbatzak, 2002ko abenduaren 23ko osoko bilkuran, behin betiko onespena eman zion Labastida udalerriko kanpamenduak eta kanpaldiak arautzen dituen ordenantzari. Horrela bada, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2. artiku-

## Ayuntamientos

### IRURAIZ-GAUNA

8.500

**Edicto**

El Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria celebrada el día 20 de diciembre de 2002, acordó la aprobación inicial del expediente del Presupuesto Municipal para el ejercicio económico de 2003. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 150.1 de la Ley 39/1988, de 28 de diciembre, Reguladora de las Haciendas Locales, dicho expediente queda expuesto al público durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente, también hábil, a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava, durante los cuales los interesados podrán examinarlo y presentar reclamaciones ante el Pleno.

El Presupuesto se considerará definitivamente aprobado si durante el citado plazo no se presentasen reclamaciones.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos oportunos.

Acilu, a 27 de diciembre de 2002.– El Alcalde-Presidente, ENRIQUE RAMÍREZ DE OCÁRIZ ARMENTIA.

### LABASTIDA

15

**Anuncio por el que se da publicidad a la adjudicación del contrato de obras de rehabilitación de la Casa Consistorial 1ª fase del Ayuntamiento de Labastida.**

1.- ENTIDAD ADJUDICADORA:

Organismo: Pleno

Dependencia que tramita el expediente: Secretaría

2.- OBJETO DEL CONTRATO.

Tipo de contrato: Contrato de Obras

Descripción del objeto: Obras de Rehabilitación de la Casa Consistorial 1ª fase del Ayuntamiento de Labastida

Lotes: No hay

3.- TRAMITACIÓN, PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN.

Tramitación: Urgente

Procedimiento: Negociado sin publicidad [art. 141 a) TRLCAP]

4.- PRESUPUESTO DE LICITACIÓN: Importe máximo: 458.969,74

5.- ADJUDICACIÓN

a) Fecha: 23 de diciembre de 2002

b) Contratista: Txema Esparta, S.L.

c) Precio de adjudicación: 448.173,3 €

En Labastida, a 2 de enero de 2002.– El Secretario-Interventor. RAÚL GÓMEZ IÑIGO.

### LABASTIDA

8.424

**Anuncio**

El Ayuntamiento Pleno, en sesión ordinaria, celebrada el día 23 de diciembre 2002 aprobó definitivamente la Ordenanza reguladora de Campamentos y Acampadas en el término municipal de Labastida. Lo que se publica para general conocimiento del Texto Articulado de

luan xedatzen duenari jarraituz, aipatu udal ordenantzaren testu artikulatua argitara emango da denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Erabaki horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, iragarki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu ondorengo egun baliodunetik hasita, halaxe agintzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 107.3. artikuluan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 10.1b) artikuluan eta 46.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

Labastida, 2002ko abenduaren 26a.– Alkate-lehendakaria, IGNACIO GIL ORIVE.

**Kanpamenduak eta kanpaldiak arautzen dituen udal ordenantza.**

AURREKARIAK

Jende asko joaten da Labastidara mahats-biltzea eta bestelako aldibaterako nekazaritza lanak direla-eta. Horren ondorioz, mahatsa biltzeko garaian sasoikako langile ugari biltzen da, eta zenbait behar sortu dira, hona:

- Sasoiko langileen seme-alaben eskolaratzea; Hezkuntza Sailari dagokio behar hori asetzea.

- Osasun laguntza; Osasun Sailari dagokio.

- Pertsonen segurtasun eta askatasuna; Herrizaingo Sailari dagokio.

Administrazio honen hausnarketa eta irizpidea bat datoz Arartekoak 2000 urtean egin zuen ez-ohiko txostenean jasotakoarekin:

Sasoikako langileak horien herrietan kontratatzea litzateke onena

Seme-alabak jatorrian zaintzea litzateke egokiena, horretarako sortutako azpiegituretan: sasoikako familien seme-alabentzako haurtzaindegiak eta barnetegiak.

Nekazaria edo kontratua egiten duen enpresa dira horien sasoikako langileei bizitoki duina eskaini behar dietenak.

Onetsi nahi den araudi honekin nekazaritzako sasoiko langileen arazoetako bati konponbidea eman nahi zaio, kanpaldien sustatzaileei garbitasunaren eta osasunaren gutxieneko baldintzak betearaziz.

Udalerrian kanpamenduen eta kanpaldien ordenantza onesten da, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2. artikuak, a), d) eta h) letrak, eta 84. artikuluak ematen dizkidan eskumenez baliatuz.

1. artikulua.- Ezingo da kanpaleku edo kanpaldirik jarri honako lur hauetan:

1. Ordezko Arauen arabera urbanizatzeko egoki den hiri-lurzoruan.

2. Ur-hartuneetatik berrehun metro baino gutxiagoko erradioan.

3. Industriako edo nekazaritzako jarduerak egiten dituzten pabilioietatik berrehun metro baino gutxiagoko erradioan.

4. Udalaren jabetzako lurretan, herri jabarikoa zein ondasun ondarea izan.

2. artikulua.- 1.- Jabetza pribatuko lursailetan egindako kanpamendu edo kanpaldietan, honakoa izango da kanpaldien sustatzailea:

a) Lursailaren jabea.

b) Kanpaldiarekin lotuta dagoen pabilioiaren edo bestelako eraikinaren jabea.

c) Kanpaldiak edateko ura badauka, edateko ura bideratzen den hartunearen titularra.

d) Kanpaldiak energia elektrikoa badauka, energia elektriko hori hartzen den hartunearen titularra.

2.- Kanpaldiko sustatzaile izatearen presuntzioa atzera bota daiteke, baldin eta Udalari idatziz jakinarazten bazaio hori horrela ez dela eta Udalari lankidetza eskatzen bazaio sasoikako langileak joanarazteko.Hala ere, eskari horrek ez dio jabeari kentzen garbitasun eta osasun-higiene baldintzak betetzeko beharra.

3 artikulua.- Kanpaldietako sustatzaileei dagokie osasun eta higienearen arauak betetzea, kanpaldien antolamenduei buruzko martxoaren 16ko 41/ 1981 Dekretuaren arabera.

la antedicha ordenanza municipal y efectos oportunos de conformidad con lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

Frente a este acuerdo se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente hábil del de este anuncio en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava. Así, artículo 107.3 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, regulador del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común, en relación con los artículos 10.1 b) y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

En Labastida, a 26 de diciembre de 2002.– El Alcalde-Presidente de Labastida, IGNACIO GIL ORIVE.

**Ordenanza Municipal Reguladora de Campamentos y Acampadas.**

ANTECEDENTES

Gran número de personas acuden a Labastida con motivo de la campaña de la vendimia y otra actividades agrícolas temporales. Ello implica asentamientos de temporeros que genera determinadas necesidades:

- De escolarización de hijos e hijas de temporeros que corresponde atender al Departamento de Educación.

- De asistencia sanitaria que corresponde atender al Departamento de Sanidad

- De seguridad y libertad de las personas que corresponde atender al Departamento de Interior.

La reflexión y criterio de esta administración coinciden con lo expresado por el Arateko en su informe extraordinario del año 2000:

Sería deseable que la contratación de trabajadores se realice en origen.

Lo ideal sería que los hijos permanecieran atendidos en origen con infraestructuras creadas al efecto: guarderías e internados para hijos de familias temporeras.

Es el agricultor o a la empresa contratante quien tiene la obligación de facilitar a sus trabajadores temporeros un alojamiento en condiciones dignas.

La regulación que se aprueba busca dar solución a uno de los múltiples aspectos del fenómeno del temporerismo agrícola y exigir a promotores de las acampadas el cumplimiento de las condiciones higiénico-sanitarias mínimas.

En uso de las facultades concedidas por los artículos 25.2, apartados a) d) y h); y artículo 84 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, se aprueba la ordenanza de campamentos y las acampadas en el territorio de su municipio.

Artículo 1.- No podrán situarse campamentos o acampadas en los terrenos siguientes:

1. Suelo urbano o apto para urbanizar de acuerdo con la clasificación de las NN.SS.

2. En un radio inferior a doscientos metros de tomas de captación de aguas.

3. En un radio inferior a doscientos metros de pabellones que acojan actividades industriales o agrícolas.

4. Cualquier terreno de propiedad municipal, sea de dominio público o bien patrimonial

Artículo 2.- 1.- En las acampadas o campamentos en fincas de propiedad privada, se presume promotor de la acampada:

a) Al propietario de la parcela.

b) Al propietario del pabellón u otra edificación que resulte conectado funcionalmente con el campamento

c) Si la acampada cuenta con suministro de agua potable, al titular de la acometida desde la que se derive el agua potable.

d) Si la acampada cuenta suministro de energía eléctrica, al titular de la acometida desde la que se tome la energía eléctrica.

2.- La presunción de condición de promotor de la acampada puede destruirse con la comunicación escrita en sentido contrario y la solicitud de colaboración municipal para el desalojo. La solicitud indicada no exime al propietario de la obligación de mantener su parcela en las debidas condiciones de limpieza e higiénico sanitarias.

Artículo 3.- Corresponde a los promotores de las acampadas el cumplimiento de las normas sanitarias y de higiene de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 41/1981, de 16 de marzo, sobre ordenación de campamentos.

